



BAT-EGITEAREN LEHENTASUNAK: LAN- ETA GIZARTE-ARLOAK

“Gobernu Organoetan nola banatuko diren ordezkariak, horrek izango du lehentasuna CCOOen eta EAJ/PNVren arteko akordioan”

Bizkaiko eta Gipuzkoako kutxetako zuzendaritzek bat-egitearen proiektua ELAri aurkeztu ziotenetik, uztailaren amaieran, **sindikatu honen desadostasuna azaldu genuen, VITAL kutxa kanpoan uzteagatik, eta gainera, esan genuen proiektua ikusmira politikotik prestatu zela, botere-banaketaren interesen arabera.**

Alderdi politikoek beste arlo batzuei buruzko akordioak lortzen badituzte (aurrekontuak...), ez da ulertzekoa elkarrikketa horietatik kanpo geratzea VITALen gaineko desadostasuna. Bada edo ez da estrategikoa euskal kutxen bat-egitea?

ELAren ikuspuntutik hauek dira azpimarratu beharreko bat-egitearen baldintzak: Gizarte-kutsuko izaera hartzea, orientabide neoliberalak alde batera uztea, eta Euskal Herriaren bilbatze ekonomikoa eta soziala helburu izatea.

Gorago esandakoa zaintzeaz gain, gure lehentasuna prozesu horretan langileen lan-baldintzak babestea izan da, bategitearen eraginpean zuzenean edo zeharka geratu diren langileen baldintzak. Hori dela-eta, ELA k hiru sekzio sindikalak landutako, agiri bana eman zien bi kutxetako zuzendariei, lan-baldintzak negoziatzen hasteko.

Bi kutxetako zuzendaritzekin pare bat bilera egin ditugu, eta horietan bat-egitearen aldeko botoa eskatu digute. Gero, negoziazio-bilera bakar bat egin dugu, eta emaitza etsigarria izan da:

Erantzunik gabeko eskariak:

- Kutxa berriak negoziazio kolektiborako esparru berri bat izatea (Bizkaia, Gipuzkoa, Araba eta Nafarroa: euskal negoziazio-esparrua)(hasieratik minimo batzuk ezarriz bai soldata mailan , bai promozio profesionalean etab..) .
- Ordezkaritza sindikalak pisu handiagoa izatea Biltzarrean, kutxa berriko herrialde bakoitzeko.
- Etekinen %30 Gizarte Ekintzara bideratzea, eta batez ere Kutxaren beraren gizarte-ekintzara.

Ezetza jaso duten eskariak:

- Negoziazio-batzorde bat sortuko da, Kutxetako ordezkariez eta langileen ordezkariez osaturik, hitzarmen desberdinetan (Vital, bbk eta Kutxa) jasotako lan-baldintzak homologatzearen (diskriminazioa eta soldata-eskala bikoitzak amaitzeko).

- Mailak (oinarrizko soldata) eta soldata-barruko eta soldataz kanpoko beste kontzeptu batzuk parekatzea, Vital Kutxaren eskala erreferentzia harturik, Kutxa horren indarreko hitzarmenean jasotakoaren arabera eguneratu eta gero.
- Azpikontratetan, kutxetako zerbitzu-enpresetan eta gizarte-ekintzan: gutxienezko soldata duina eta subrogazio-eskubidea bermatzea.
- Gizarte-ekintzan gutxienezko soldata duina bermatzea, eta betegabeko postuak eta postu berriak Kutxaren beraren enplegu finkoaren bitartez betetzea. Etekinen %30 Gizarte Ekintzara bideratzea, eta batez ere Kutxaren beraren gizarte-ekintzara.

Elkarbidean ipintzeko moduko alderdiak:

- **Lanaldia:** 2011ko urtarrilaren 1ean Finantza Jardueraren lanaldia, bbk-ren hitzarmen kolektiboaren arabera, 1650 ordukoa izango da.
- **BGA/EPSV:** Kutxak orokorrean bbk-ren VI mailari dagokion soldataren %6ko ekarpena egingo du.
- **Garaiz aurreko erretiroak, hurrengo baldintzetan:** unibertsalak eta borondatezkoak izatea, akordio sindikala eta ordainsari osoa ez izatea urteko soldata gordinaren %80tik beherakoa. 2010eko lehen hiruhilekoan, 1949 urtera arte jaiotakoak. 2011ko lehen hiruhilekoan 1950 urtean jaiotakoak.
- **Gizarte-ekintza:** Kutxa berriak Gizarte Ekintzaren Plan Estrategikoa egingo du; baina Biltzar Nagusian aurkeztu baino lehen, langileen ordezkariari emango dizkie informazioa eta entzunaldia.

Horiek horrela, ELAn uste dugu ez dagoela akordioa egiteko borondaterik, bat-egitearen lehentasunezko gaietan behintzat:

1.- Euskal negoziazio-esparrua.

2.- Kutxa berriaren apustu sozialaren ondorioz, lan-baldintzetatik ezabatuko dira diskriminazioak, eskala bikoitzak, azpikontratazioak eta zerbitzu-enpresak gehiegi erabiltzea... Akordio horrek hartuko lituzke bat-egitearen zuzeneko edo zeharkako eraginpean geratu diren langileak.

Horiexek dira gure lehentasunak, eta ez PNVren eta CCOOen arteko akordioan jasotakoak: babesa elkarri ematea eta gobernu-organoetako ordezkariak banatzea, hau da, botere-banaketa. Akordio horren bidez, batzuek aurrera ateratzen dute beren proiektua, eta besteek botere-mailak eskuratzen dituzte, lan-baldintzen kontura izan arren.